


# Errobotik euskal itsasbazterra

Ibilbide guziak eskuragarri Turismo Bulegoetan ►►



MAILA

4

ZAILA



## MENDIKO ITZULIA

EZPELETA



**M**endiko ibilaldi miressgarria, Mundarraineko lepora eramaiten duena. Ibiltari entrenatu eta mendi lasterketazaleendako itzulua (trail). Erreferentziazko iraupena ibitarientzat neurtua da.

### Abiatzeko bidea:

Merkatu plaza, herri barnetik eta aparkaleku handi batetik hurbil, Doxpi jatetxearen parean.

Merkatu plazatik **D** 625909 - 4799691, jauregiaren aitzinetik pasatu. Bidegurutzean (jendarmariaren aitzinean), ezkerrera hartu RD 918 bidean, 150 metroz segitu eta eskuinera hartu baratze-zainaren parean **1** 0626177 - 4799844. Igaite gogor baten ondoren **2** 626910 - 4798874, Haranea auzora **3** 0626742 - 4798358 iritsi. RD-a zeharkatu eta parean segitu 125 metroz, bidegurutzera arte. Ezkerrera hartu bihurgunez bihurgune goiti doan bidean. Eskuinaldeko xendra **4** 626858 - 4797790 ez huts egin: iratze eta oteen artetik igaiten da eta eskuinaldetik segitu behar den pista batera doa. Ezkondraiko ordokian, bidegurutzean, zuzen segitu mendi mazelatik. Ereku heze eta intatsuak zeharkatu ondoren, ezkerrera hartu Amezketako lepora joaiten den zuhaitz erretxinadunen oihanetik **5** 627222 - 4796503. Mundarraingo leporuntz hartu eskuinaldean. Pagadia eta harri-jausiak/luizietatik doan igaitze horretan, balizetatik ez urrundu.

Kaskotik **6** 627155 - 4795537, bista panoramiko

miresgarria eskaintzen da. Jaitsiera gogor baten ondoren, pista baten itxura hartzen du xendrak, GR®10 **7** 626686 - 4794140 eta Zuharretako lepora joaiteko. GR®10-a segitu eskuinaldean, lepo ttipiraino **8** 625909 - 4795205 joaiten den lurbide zabaletik. GR®10-a laster utzi eta eskuinaldera hartu, beste ordoki batera igaiten den pistan. Lehenago utzitako pista berriz hartu Hiru Gurutzeen lepora **9** 624431 - 4795590 joaiteko. Lepoan, haranera jaisten den bidea ez huts egin, eskuinaldean. Bide mundrunatura iritsi. «Haltia» izeneko lekuan, Mehaxea baserrira joaiteko bidea hartu GR®8-ra **10** 624837 - 4797953 iristeko. Eskuinaldeko hesiaren bazterretik joan ondoren, haranera berriz jaitsi. Latsa erreka **11** 625262 - 4898780 zeharkatu. Herria ez da urrun.

1.00

1.20

2.00

2.30

3.05

4.15

5.20

5.55

6.30





**D** Espeleta,  
merkatu plaza

GPS : 625909 - 4799691



**6.30 oren**

**17 km**  
 **+908 m**  
 **-908 m**

**Seinaletika**

- D-tik 7 -rat
- 7-tik 8 -rat
- 8-tik 10 -rat
- 10-tik 11 -rat

**Huts egin behar ez dena**

- Hiru Gurutzeen Lepoa
- Mundarraingo gotorlekuaren hondakinak
- Bista, Soporroko mendi gainetatik
- Mendi lasterketa (Course des crêtes) : uztaileko lehen larunbatean

- Kasu egin RD 918 bidean
- Animaliekin urruntasun zerbait atxiki

Xehetasun gehiagorentzat:



**Ezpeletako Turismo Bulegoa**  
Ezpeletako Baroien Jauregia – 64250 Espeleta - Tel : 05.59.93.95.02  
Mail : [espelette.tourisme@wanadoo.fr](mailto:espelette.tourisme@wanadoo.fr) - Web : [www.espelette.fr](http://www.espelette.fr)



« Guides randos 64 » zerrenda osoa: [www.rando64.fr](http://www.rando64.fr)

**[www.rando64.fr](http://www.rando64.fr)**

*oinez, bizikletez edo zaldiz, Biarno eta Euskal Herria deskubritu!*



# ZUEN IBILALDIA ONGI HAUTATU

## Maila eta seinaleak



**Desmaila:** ibilaldi bakoitzarentzat, igaite guziak kalkulatuak dira.



**Iraupena:** ibilaldi bakoitzaren iraupena adierazgarri gisa erabiltzen da. Ibilaldiaren luzetasuna, desmaila eta menturazko zailtasunen arabera neurtzen da.



## Ibilaldiak

**Ibilaldiak zailtasunen arabera sailkatuak dira,** eta gida orri bakoitzean koloreen bidez desberdinak dira.

Ibilaldien FF-ren gomendioak segitzen ditugu.

▶ 2 oren baino guttiagoko ibilaldia  
*Idealki familiarekin egiteko, ongi markatuak diren bideetan.*

▶ oren baino guttiagoko ibilaldia  
*Ibiltari ohituentzat. Batzuetan desmailak edota guneko kiroitsuak.*

▶ oren baino guttiagoko ibilaldia  
*Familiarekin egin daiteke. Bideetatik, batzuetan pasabide zailagoak.*

▶ oren baino gehiagoko ibilaldia  
*Ibiltari esperientziadun eta kiroitsuentzat. Ibilaldi luze edota zailak (desmaila, pasabide gogorak).*

Balizak segitu bide onean egoteko

Xendren balizak	Herri eta PR <sup>®</sup> -en xendrak	GRP <sup>®</sup>	GR <sup>®</sup>	VTT	Zaldiketa
Norabide ona					
Ezkerretara hartu					
Eskuinera hartu					
Norabide txarra					

GR<sup>®</sup>, GRP<sup>®</sup> eta PR<sup>®</sup> Ibilaldien Frantses Federazioak erregistratu markak dira.

Ibilaldi batzu kalitate eskakizunen arabera hautatu ditu Ibilaldien Frantses Federazioak, PR<sup>®</sup> labelaren pean.



Bidezidor seinaleak

## Bideen GPS helbideak

Erreferentziako neurria:  
WGS 84 - UTM 30T  
Ibilbideen GPS bideak  
telekargatu:  
[www.rando64.fr](http://www.rando64.fr)

## GOMENDIO BALIAGARRIAK

▶ Meteo 08 92 68 02 64 edo 32 50 edo [www.meteofrance.com](http://www.meteofrance.com).

Errobitik euskal itsasbazterrerako bideetan zehar ibiltzeak errespetuzko jarrera bat eskatzen du natura eta lurralde horiek biziarazten dituzten gizon eta emazteei begira. Arau batzu errespetatu behar dira.

### Natura zaindu

▶ Zuen hondarkinak atxikitzeke zaku bat hartu ▶ Fauna eta flora errespetatu ▶ Balizak dituzten xendretan egon

### Zuen burua babestu

▶ Material egokirik gabe ez joan  
▶ Bakarrik joaiteak arriskuak ditu  
▶ Erreketatik datorren ura ez edan  
▶ Meteo so egin

▶ Europako urgentziako deia 112

— *Jarduerak eta jendeak errespetatu* —

▶ Hesiak berriz hetsi  
▶ Xakurrarekin joaitea ez da komeni. Kasu guzietan, sokatik atxiki.  
▶ Suak debekatuak dira  
▶ Ibilaldien bazterretan diren jabego pribatuak errespetatu

Kasu !

Usa ehiza garaian (urritik azarorart), ehizaldietan (urte osoan zehar) eta lurra erretzean (abendutik martxorart), ibilaldi batzu saihestu behar dira. Turismo bulegoetan xehetasunak galdegin.

## Egiteko gomendioak:



## Gure xendrei buruzko iritziak

**Eco-veille**

Proposatzen dizkizuegun ibilaldiak arreta handiz hautatuak izan dira. Bideei dagokienez, zuen iritzi eta oharrak ongi etorriak dira atxikitzea edo mantentzea ahalbidetzeko. Zuen iritziak emaitza gonbidatzen zaituztegu Errobi Herri Elkargora deituz, 05 59 93 65 94.

Ecoveille<sup>®</sup> orria telekargatzen ahal duzue: [www.rando64.com/ecoveille](http://www.rando64.com/ecoveille)

Ecoveille<sup>®</sup>.behaketa orri bat ere eskuratzen ahalko duzue.

[www.rando64.fr](http://www.rando64.fr)

oinez, bizikletez edo zaldiz, Biarno eta Euskal Herria deskubritu!